EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**
Dolores Ibarruri BHI

**Ikastetxearen kodea:**
014010

**Data:**
2024(e)ko ekainaren 25(a)



# 1. SARRERA

**Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

DOLORES IBARRURI BHI ikastetxe publikoa Abanto-Zierbenako Gallarta auzoan kokatuta dago, Bizkaiko mendebaldeko Meatzaldea eskualdeko udalerrian, hain zuzen ere. Herriak 9331 biztanle ditu eta 16,2 km2 -ko azalera du.

Gure Institutuan hiru etapa daude: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa eta Heziketa Zikloak. DBHn D hizkuntza-eredua dugu soilik, 13 gelatan banatuta 271 ikaslerekin. Batxilergoan ere D hizkuntza-eredua dugu, 3 gelatan banatuta 62 ikaslerekin. Bertan, bi modalitate dauzkagu: Zientzien eta Teknologiaren Batxilergoko ikasleak, eta Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergokoak. Baita, Goi Mailako Heziketa Ziklo bi ditugu: batetik, Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntzako Goi-Mailako Teknikaria (GKAIT- TSEAS) “A” ereduan. Bestetik, Egokitze Fisikoko Goi-Mailako Teknikaria (EFT-TSAF) “D” ereduan.

Hortaz, orotara 430 ikasle daude gutxi gorabehera. 55 pertsonek osatzen dute ikastetxearen klaustroa eta horietatik %49,1ek behin betiko destinoa du. 16 departamentu didaktiko eta Orientazio departamentuan antolatuta daude. Horretaz aparte, aniztasunaren trataerarako bikoizketak, HBSP eta pedagogia terapeutikoko bi irakasle daude, horietako batek HIPI funtzioa betetzen duena.

Herriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakarra da, eta mugakideko udalerrietan Heziketa zikloak irakasten dituen ikastetxe publiko bakarra da. Dolores Ibarruri BHI, Abanto-Zierbenako Lehenengo Hezkuntza eskola guztietako erreferentzia zentrua da; alegia, Buenos Aires HLHH, Etorkizuna Ikastola, El Casal HLHH, Maestro Askartza Isusi HLHH.

Orokorrean gure ikasleen familien maila sozio-ekonomikoa heterogeneoa da, baina oro har, ertaina-baxua edo baxua dela esan genezake. Alegia, 2019ko ebaluazio diagnostikoan Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK-a) -0,57 izan zen eta 2021koan -0,45koa, populazioaren maila baxuan kokatuz. Askok dirulaguntza ezberdinak jasotzen dituzte ikastetxeko materiala, jantokia eta gailu digitalak erosteko, horregatik, dirulaguntza horiei esker ikasle gehienek etxean lan egiteko baliabide digitalak dituzte. Halere, hurrengo atalean azalduko den bezala, azpiegituren aldetik oso ongi hornituta dago ikastetxea eta gainera, iaz hasi zen portatilen renting zerbitzuari esker eramangarri bana dute ikasle guztiek.

Ikastetxearen **ikuspegia eta baloreak** Hezkuntza Proiektuan definitzen diren ildo estrategikoek ongi azaltzen dute:

- Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarrizko gaitasun eta gaitasun orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.

- Ikasleen partaidetza institutuan bultzatzea, parte hartzeko bideak ezarriz eta aukerak sortuz.

- Elkarrekiko errespetua, tolerantzia, lankidetza eta elkartasuna printzipioetan oinarritutako bizikidetzaren kudeaketan hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikatzea, ikasleriaren giza trebetasunak garatzen saiatuz.

- Institutuan erabiltzen diren hizkuntza instrumentalen garapenari dagokionez tratamendu bateratua, errealista, funtzionala eta irekia eskaintzea. Euskararen erabilera institutuko esparru guztietan eta hezkuntza komunitateko kide guztien artean indartzea.

- Familiak euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzea bultzatzea, elkarren arteko errespetuzko harremanetan oinarrituta, euren eskari eta beharrizanei erantzunez eta ikasleen etengabeko hazkundea erdietsiz.

- Hezkuntza-eskaintza inguruko ingurunearen beharretara egokitzeko bultzada, ahal den neurrian, ikasleen prestakuntza gizartearen eskaeretara egokituz.

**Azpiegiturak**

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxeak gune digitalizatuak, Interneterako konexio eta wifi sareen hedapen ona du orokorrean. Hauexek dira eraikinak dituen baliabide fisiko eta logikoak:

HARDWARE-RI DAGOKIONEZ:

- Irakasleek ordenagailu eramangarri bana dute.
- Irakasle gelan, bulego eta mintegietan beste hainbat mahai-gaineko ordenagailuak.
- Ikasleek ordenagailu eramangarri bana dute.
- LAN sare kableatua.
- VoIP telefono sarea.
- Hiru Wifi sare: irakasleak, ikasleak eta renting eramangarriena 25 bat wifi sarbide puntuen bidez hedatuta.
- Gela guztiek dute: Arbel digitala, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailu bat sarera konektatuta.
- Hiru informatika gela: Orotara 60 ordenagailuekin.
- Sarera loturiko bi fotokopiagailu.

SOFTWARE-RI DAGOKIONEZ:

- Webgune ofizial bat, non ikastetxearekin lotutako alderdi garrantzitsuak jasotzen diren.
- Sare sozialak: Youtube, Instagram eta Twitter.
- Moodle plataforma: sailak eskaintzen duen Irakasteko Ingurune Birtuala, azken urteetan, tamalez, gutxiago erabiltzen dena.
- Googleren WORKSPACE entornoa, domeinu propioarekin (doloresibarruribhi.eus). Honi esker, irakasleek aplikazio hauek erabil ditzakete: gmail, drive, calendar, classroom, meet, sites,...
- Irakasle guztiek ikasleekin lan egiteko Google apps baliabideak erabiltzen dituzte.
- Hezkuntza sailak eskainitako beste plataforma eta aplikazioak: Notak eta hutsegiteak, Kudeaketa ekonomikoa eta inbentarioa... Familien komunikaziorako plataformak Hezigune eta Ikasgune.
- Hezkuntza sailak eskainitako Irakaslearen koaderno digitala: erabilgarritasun ezagatik baztertuta utzi da azken urteetan. Barne alternatiba sortuta dugu dagoeneko.
- CAU zerbitzua: matxurak konpontzeko ezinbestekoa denean.

**Proiektuaren justifikazioa**

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

“Nola lagun dezake teknologia lagun duen ikaskuntzak edukia entregatzetik haratago joaten eta benetan hobetzen hezkuntza berritzaile bat, ikasleek trebetasunen hainbat eta hainbat konbinazio gara dezaten? Irakaskuntza- eta ikaskuntza-ikuspegi berritzaileek lagun al dezakete pentsamendua eta sormena pizten, ikasleen parte-hartzea sustatzen, lankidetza bultzatzen? Ikuspegi horiek ezarriz gero, eraginkorragoak, nabarmenagoak eta atseginagoak izango al dira irakaskuntza eta ikaskuntza?" (OCDE, 2016: 88).

ELGAk planteatzen dituen galdera hauek aintzat hartuta eta ukaezina den hezkuntza bilakaera honetan, apurka-apurka, ikaskuntza estandarizatuko sistema batetik beste sistema batera igaro behar dugu zeinetan oinarritzat hartu behar diren ikasle bakoitzaren banakako premiak, ikasle guztiei aukera eman diezaiogun bere erritmoan aurrera egiten.

Digitalizazioak asko dauka esateko eta emateko honetan; Teknologia digitalek gure bizitzako esparru guztietan duten presentzia dela eta, euskal hezkuntza sistemak egokitu ez ezik, aldaketarako eta berrikuntzarako eragile ere izan behar du. Ikasleek, langileek, hezkuntza-erakundeek eta familiek aukera izan behar dute aprobetxatzeko teknologia digitalek irakasteko, ikasteko, komunikatzeko eta sortzeko eskaintzen dituzten aukera ugariak.

Testuinguru horretan, gutxika-gutxika ikastetxeak hezkuntza-maila guztietan sartu beharko ditu teknologia digitalak, irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko teknologia horien bidez Curriculum berriak azpimarratzen duen konpetentzia digitala garatzeko.

**Elaborazio prozesua eta lan-taldea**

Lehentasunak zehaztu.
Planifikazio maila zehaztu.
Nor izango da eragilea?

Ikastetxeko Proiektu digitalaren diseinuak ideia nagusiak jasoko ditu, lehentasunak zehaztuko ditu eta ikastetxearen aldaketa- eta hobekuntza-prozesuan lan-plana markatuko duten plangintza-mailak (proiektuak, programak, ekintzak…) ezarriko ditu. Horiek markatuko dute ikastetxearen lan plana hobekuntza prozesuan zehar.

Era berean, Zuzendaritza Taldeak Jarduera Digitalaren Plana diseinatzeko eta ezartzeko prozesuan parte hartzea funtsezkoa da, bai bere erantzukizunetik ekar dezakeen ikuspegi orokorragatik (diseinu-fasean), bai erakundearen baliabideak izendatzeko eta ardurak banatzeko gaitasunagatik (ezartze-fasean).

Lan-taldearen partaideak eta antolamendua:

Partaideak:

- Joseba Etxaniz Bilbao (zuzendaria)
- Iñaki Garcia de Bikuña (Informatika irakaslea / Mentorea)
- Oihane Presa Lago (Fisika eta Kimika irakaslea / Berrikuntza arduraduna)
- Sara Gonzalez Gomez (Gaztelania irakaslea / Berrikuntza arduraduna)
- Aingeru Olivan Orbe (Informatika irakaslea / Berrikuntza arduraduna)

Antolamendua:

IKT batzordea hilean behin bilduko da eta hartutako erabakiak hezkuntza komunitateari adieraziko zaizkio.

Komunikazio prozesua erabakien arabera egiten da:

- Pedagogi batzordearen bileretan: mintegi guztiek honen berri izan dezaten eta beharrezkoa jakin dezaten.
- Klaustroko bileretan.
- Web orria, Sare sozial, Moodle eta Google Appsen bidez.
- Irakasleei eta ikasleei informazio zuzenaren bidez.

Ikastetxearen Proiektu Digitalak:

- Gaur egun ikastetxea non dagoen ulertzen laguntzen du. Ikastetxearen egoera analisia: autoebaluazioa eta hausnarketa.
- Ikastetxeak nora iritsi nahi duen zehazten du: helburuak.
- Ikastetxea egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazten du: helburuak lortzeko ekintzak zehaztea.

**Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

Ikastetxeko urteko planak duen helburuetako bat "Curriculum berriaren garapena eta digitalizazioa" da; Hauxe zehaztuz: "Irakaskuntzaren planteamendu berriei eta hezkuntza- sistemaren eskakizunei aurre egiteko beharrezkoak diren estrategiak eta baliabideak eskainiko dira gelan inplementatzeko. Hortaz, berrikuntza eta curriculum-aldaketa sustatzea, irakaskuntza-hobekuntzari, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzari eta ikasleen ikaskuntzari lotuta."

Curriculum berriak ikasleen irteerako profil orokorra jasotzen du, eta definitzen da zer oinarrizko konpetentzia lortu behar duten ikasleek Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzen dutenean. Hala, ikastetxeak profil hori hartu du kontuan islatzeko bere hezkuntza-proiektuan. Halaber, profila bera izango da ardatz bideratzeko zein izango diren hobekuntza-planak eta Oinarrizko Hezkuntzako etapa desberdinetako programazioa, garapena eta ebaluazioa; horrez gainera, erabakigarria izango da irakasleen prestakuntza planifikatzeko.

Ikasleen irteerako profil hori kontuan hartuta, konpetentzia digitala da Curriculumean proposatzen den oinarrizko konpetentzietako bat. Horrek esan nahi du gure ikasleek konpetentzia digitala lortu behar dutela oinarrizko hezkuntza amaitzen dutenerako; hau da, bermatuta izango dute erabateko alfabetatze edo gaitze funtzionala lortzen dutela. Eta euskarri digitaletan eta analogikoetan aritzeko konpetentzia multimedia hori lortzeko, baliabide digitalak metodologikoak, instrumentalak, eta abar) modu normalizatuan izango dira bidelagun jakintza-alor guzti guztietako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesu eta -egoeretan, IKTak ikasi eta irakasteko prozesu horieta guztietan txertatuta izanik.

Besteak beste, proiektu digitalak honako hauetan lagunduko dio ikastetxeari:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerari dagokionez.
- Erakundearen estrategia digitala planifikatzea.
- Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea.
- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak inplikatzea ikastetxeetako kultura digitala garatzeko.

# 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

DigCompOrg markoak ezarritako jarraibideen arabera, zentroaren egoeraren analisiak hiru dimentsioak hartuko ditu kontuan: pedagogikoa, teknologikoa eta antolamendukoa. Europako markoak 8 eremutan oinarritzen du ikastetxearen azterketa: Lidergoa, Kolaborazioa eta sareak, Azpiegitura eta ekipamenduak, Etengabeko prestakuntza profesionala, Pedagogia: laguntzak eta baliabideak, Pedagogia: Ikasgelan aplikatzea, Ebaluazio-jarduketak eta Ikasleen konpetentzia digitalak.

Azterketa hori egiteko, SELFIE tresnaren laguntza izan dugu [auto-hausnarketa]. Tresna hori doakoa da, eta ikastetxeei laguntzen die ikaskuntza eraginkorra eta berritzailea lortzeko teknologia digitalak nola erabiltzen dituzten planteatzera.

Tresna honen bidez, ikastetxeak teknologia digitalen erabilerari dagokionez duen egoeraren argazkia lortu dugu, irakasleen, ikasleen eta zuzendaritza-taldearen iritziak kontuan hartuta.

EREMUEN LABURPENA

Hurrengo zenbakiek 1etik 5era adierazten dute zuzendaritza-taldeko kideen, irakasleen eta ikasleen erantzunen batezbestekoa, eremu bakoitzari dagokionez.

LIDERGOA: Zuzendaritza: 2,8 -- Irakasleak: 3,7

KOLABORAZIO ETA SAREAK: Zuzendaritza: 2,6 -- Irakasleak: 3,4 -- Ikasleak: 2,9

AZPIEGITURA ETA EKIPAMENDUA: Zuzendaritza: 3,7 -- Irakasleak: 4 -- Ikasleak: 3,4

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA PROFESIONALA: Zuzendaritza: 2,8 -- Irakasleak: 3,5

PEDAGOGIA (Laguntzak eta baliabideak): Zuzendaritza: 4 -- Irakasleak: 4 -- Ikasleak: 3,7

PEDAGOGIA (Ikasgelan aplikatzea): Zuzendaritza: 3,1 -- Irakasleak: 3,5 --Ikasleak: 3,4

EBALUAZIO-JARDUERAK: Zuzendaritza: 2,8 -- Irakasleak: 3,3 -- Ikasleak: 3

IKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALA: Zuzendaritza: 3,3 -- Irakasleak: 3,6 -- Ikasleak: 3,3

Galdetegi honeri esker eta bereziki, azken urteetan izandako IKT eta Sare Hezkuntza proiektu sendo batek eman digun esperientziaren ondorioz, hurrengo ataletan azaltzen dira ikastetxearen egoera digitalaren analisia eta etorkizunerako adostu diren helburu eta ekintzak nagusiak.

**AMIA analisia**

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

## Faktore negatiboak

| Ahuleziak (barne-faktoreak) |
|---|
| Digitalizazio batzordeak berrikuntza orduekiko duen dependentzia. |
| Hezkuntza sailaren komunikazio eta kudeaketa sistemeekiko dependentzia. |
| Baliabide teknologiko eta Internet sare barne kudeaketa eta mantenu mugatua. |
| Ikastetxeko gailuak eta mugikorrak arduraz erabiltzeko gida edota protokolorik ez. |
| Departamentuen arteko esperientzia eta baliabide partekatze gordailu falta. |
| Eremuka lan egiteko aurreprestakuntza falta. |
| Klaustrokideen interes eta maila ezberdinak, etengabeko aurrerapena zailagoa egiten dutenak. |
| Irakaslearen koaderno digital integratu eza. |

| Mehatxuak (kanpo-faktoreak) |
|---|
| Berrikuntza Arduradun (BeA) eta dagozkion funtzionamendurako orduen behin-behinekotasuna. |
| Inguruko ikastetxeekin estrategia digital bateratu eza. |
| Konektibitate arazoak eta limitazioak zentruan. |
| Ikasleen portatilen asistentzia tekniko motela. |
| Interneterako konexiorik ez etxe batzuetan. |
| Familien kopuru txiki baten komunikazio digital eza edo mugak. |
| Gazteen ohitura desegokiak teknologiaren erabileran. |

## Faktore positiboak

| Indarguneak (barne-faktoreak) |
|---|
| Zuzendaritza talde egonkorra, proiektu berriarekin eta estrategia digitalari garrantzia ematen diona. |
| Heldutasun teknologiko eredu aurreratua, irakaslego trebatua eta kontzientziatua. |
| Digitalizazio batzorde zabala eta egonkorra. |
| Harreman positiboak inguruko zentroekin. |
| Ikastetxeko ekipamendu informatikoaren hornidura ona. |
| Espazioak eta baliabideak erabiltzeko protokoloak. |
| Urteroko formakuntzetan digitalizaziok duen pisua. |
| Ikaskuntzarako ingurune birtualen erabilera handia. |
| Barne eta kanpo komunikazio sistema egonkorra. |
| IGEren inplikazioa eta parte-hartze ona. |
| Hainbat proiektu berritzaileetan murgilduta. |

| Aukerak (kanpo-faktoreak) |
| --- |
| Hezkuntza sailaren eraldaketa digitalerako planak eskaintzen dituen baliabideak. |
| Inguruko hezkuntza-erakundeekin harremanak sustatzea, esperientziak partekatzea. |
| Hezkuntza-material digital askeak, gordailu publikoak. |
| Prestakuntza-ikastaro plataforma anitzak. |
| Teknologiaren erabilera egokiaren sentsibilizazio tailerrak egiteko diru-laguntzak. |
| Irakasle berrien metodologia eta motibazio berriak. |
| Udalaren eta IGEren inplikazioa eta harremana. |

**Autoebaluazioaren ondorioak**
Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

**Indarguneak** optimizatu **aukerak** areagotzeko

● Zuzendaritzaren egonkortasuna eta digitalizazioari ematen dion garrantzia era egokian erabili sailak martxan jarri duen eraldaketa planeko baliabideak ustiatzeko; Digitalizazio batzorde egonkorra mantendu, Curriculum egokitzapena eta digitalizazioa ikastetxean uztartzeko ekintzak, prestakuntzak… bideratu, departamentuak inplikatu…
● Irakaslego trebatuak eta kontzientziatuak, irakasle gazteen metodologia eta motibazio berriekin batera hezkuntza sailak eta zenbait erakundeek eskeintzen dituzten proiektu, lehiaketa, esperientzia berrietan parte hartzeko konfiantza eta babesa eman, beti ere, teknologia digitalen erabilera bultzatuz.
● Inguruko ikastetxeekin dugun harremana, zuzendaritzak, mentoretza eta BeAtarren figura berriak aprobetxatu lotura horiek sendotzeko, esperientziak partekatzeko eta orokorrean, udalerriko ikasleen digitalizazio ibilbidea modu zabalagoan planteatzeko.
● Hezkuntza-material digital askeak, gordailu publikoak eta prestakuntza-ikastaro plataformak irakaslegoari ezagutarazi IIBen erabilerarekin jarraitzeko eta bultzatzeko.
● Udalaren eta bereziki, IGEren inplikazioaz baliatu ekipamendu zaharkitua berritzeko, proiektu berritzaileetan inplikatzeko eta gurasoekiko komunikazio sistemak eraginkorrak izateko.

**Ahuleziei** aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

● Ikasleek ikastetxeko gailuak eta mugikorrak, ikastetxean zein etxean, arduraz erabiltzeko sentsibilizazio eta kontzientziazio tailerrak planteatu, udaletxeak eta sailak noizero ateratzen dituzten proiektu, ekimen edo diru laguntzak erabiliz. Guraso eta irakasleekin ere.
● Departamentuen arteko esperientziak eta baliabideak partekatzeko guneak eta uneak bilatu, horretarako formakuntza saioak antolatuz, klaustrokideen eskarmentu, interes, trebezi maila ezberdinak bateratzeko eta eremuak uztartzeko.
● Irakaslearentzako koaderno digital integratu bat eraikitzea, inguruko ikastetxeek dituzten baliabideak ikertuz, irakasle berrien esperientzak entzunez eta hezkuntza sailari, digitalizazio plan honen barnean, gure egunerokorako baliabide duinak eskatuz.
● IGEren laguntza izan gurasoekiko komunikazio sistemak eraginkorrak izateko eta familientzat prestaturiko formakuntza saioetako asistentzia hobetzeko.

**Indarguneak** optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

● Ikastetxeko proiektuen bidez etxeetan konektibitate arazoak edo internet konexiorik ez duten ikasleeei proiektu hauetan parte hartzeko aukera zabaldu.
● Zuzendaritzaren egonkortasuna eta irakaslegoaren inplikazioa erabili batzorde digitalari epe luzerako jarraipena bermatzeko.
● Inguruko zentroekin dugun harreman positiboa erabili estrategia digital bateratu bat sortzeko.
● Ikastetxeko baliabide digitalen erabilera protokoloak eta irakaslegoaren konpetentzia maila indartu ikasleek duten ohitura desegokiak ekiditeko.
● IIBak eta komunikazio sistemak sendotu familien %100era ailegatu ahal izateko.

**Ahuleziei** eta **mehatxuei** aurre egin

● Berrikuntza orduetatik kanpo elkarlanean jarraitu nahi duen Digitalizazio batzorde bat osatu.
● Gurasoentzako formakuntza saioak antolatu ikasturte hasieran. Formakuntza saio hauetan ikastetxean erabiltzen diren plataformak, aplikazio, ikasgela birtualak,...ezagutarazi eta erabileran murgiltzeko.
● Irakasleentzako pribatutasuna, datuen babesa, partekatze sistema eta lizentziei buruzko formakuntza saioak antolatu eta ikasleekin lantzeko jarraibideak adostu.
● Udalerriko ikastetxeetan jarraitzen dituzten estrategia digitalak ezagutu etortzen zaizkigun ikasleen ibilbide digitala gurearekin modu eraginkorrean egokitzeko.
● Eramangarrien erabilera egokia eta oinarrizko mantenu aholkuak biltzen dituen protokola zehaztu eta ikasleekin landu zabaldu beharreko inzidentzien kopurua murrizteko.

# 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

## LG Lidergoa eta gobernantza

| Helburua |
|---|
| **Digitalizazio batzorde egonkorra osatzea, ikastetxeak dituen giza baliabide eta errekurtsoak egoki kudeatuta, gaitasun digitalerako plan estrategikoa aurrera eraman ahal izateko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago | 2024/05/31 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu eta hobetz | Bai/Ez | Bai |
| Digitalizazio batzordea osatu da. | Bai/Ez | Bai |
| Digitalizazio batzordekideen ordutegia, betebeharrak eta koordinazio bideak zehaztu dira. | Bai/Ez | Bai |
| 23-24 ikasturterako IPD helburuak eta ekintzak aurkeztu dira. | Bai/Ez | Bai |
| IPDaren ebaluazioa egin da eta hurrengo urterako beharrezkoak diren egokitzapenak egin dira. | Bai/Ez | Bai |

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| IPDa aurrera eramateko beharrezkoa izango den jendea eta orduak aurreikusi. | IPDko helburuak eta ekintzak, bilerak | BeAtarrak, IKT arduraduna, Dig. batzordea (balego), zuzendaritza | 2023/06/01 | Egina |
| Digitalizazio taldea osatu | Klaustrokideak, plazen konfigurazioa | Zuzendaritza | 2023/06/16 | Egina |
| Batzordekideen ardurak eta koordinazio bilerak zehaztu. | Bilerak, egutegia, ordutegiak | Zuzendaritza, Dig. batzordea | 2023/09/22 | Egina |
| IPDaren ebaluazio eta jarraipen plana adostu. | IPDa, kontrol orriak | Dig. batzordea | 2023/09/29 | Egina |
| Klaustrokideei 23-24 ikasturteko IPD helburu, ekintza eta arduradunak aurkeztu | Mintegi buru bilerak, klaustroak... | Dig. batzordea | 2023/10/04 | Egina |
| Ikasturte amaierako IPD ebaluazioa egin eta behar diren egokitzapenak adostu. | Kronograma, IPDa, kontrol zerrendak... | Dig. batzordea | 2024/05/01 | Egina |

| Helburua |
|---|
| **Digitalizazio batzordearekin jarraitzea, ikastetxeak dituen giza baliabide eta errekurtsoak egoki kudeatuta, gaitasun digitalerako plan estrategikoa aurrera eraman ahal izateko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago | 2025/06/27 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu e | Bai/Ez | Bai |

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Digitalizazio taldea osatu, ardurak eta koordinazio bilerak zehaztu. | | Dig. batzordea | 2024/09/27 | Prozesuan (%80-99) |
| IPDaren helburuak aztertu eta ebaluazio eta jarraipen plana adostu. | | Dig. batzordea | 2024/09/27 | Prozesuan (%60-79) |
| Klaustrokideei 24-25 ikasturteko IPD helburuak komunikatu. | | Dig. batzordea | 2024/10/25 | Detektatua |
| Ikasturte amaierako IPD ebaluazioa egin eta behar diren egokitzapenak adostu. | | Dig. batzordea | 2025/06/27 | Detektatua |

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

| Helburua |
|---|
| **Ikasleen konpetentzia digitala barne hartzen duten programazio eta ikas egoerak sortzea, etapa bakoitzean lortu beharreko gaitasun maila kontuan izanda, ikasketen amaieran DigComp 2.2 markoak definituriko herritarrentzako konpetentzia digitalera hurbiltzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira | 2024/05/31 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| Ikasleen konpetentzia digitala maila etapaka zehaztuta dago. | Bai/Ez | Bai |
| Irakasleek konpetentzia digitala barne hartzen duten programazio eta ikas egoera bat sortu dute. | Ehunekotan | %60 |
| Sorturiko programazio eta ikas egoerak eskuragarri daude klaustrokide guztientzat. | Bai/Ez | Bai |
| Diziplinarteko proiektuak programazioetan jasota daude. | Ehunekotan | %20 |

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Etapa bakoitzeko ikasleek lortu beharreko konpetentzia digital maila zehaztu. | DigComp markoa eta IKT irteera profila | Dig. batzorde, IKT arduraduna, Zuzendaritza | 2023/09/15 | Prozesuan (%60-79) |
| Konpetentzia digitala programazio eta ikas egoeretan txertatzen laguntzeko saioak proposatu. | Ikas-egoera txantiloia, Curriculuma | Dig. batzordea, BeAtarrak | 2023/10/31 | Egina |
| Irakasleek konpetentzia digitala barne hartzen duten programazioak sortu. | Txantiloi berriak, Curriculuma, ikastetxeko IKT irteera profila | Dig. batzordea, Irakasleak, BeAtarrak | 2023/11/15 | Egina |
| Irakasleek konpetentzia digitala barne hartzen duen ikas egoera bat sortu. | Txantiloi berriak, Curriculuma, ikastetxeko IKT irteera profila | Dig. batzordea, irakasleak, BeAtarrak | 2023/12/15 | Egina |
| Lankideen lanak klaustrokide guztientzat eskuragarri utzi. | Unitate partekatuak, Site | Dig. batzordea, irakasleak | 2024/01/31 | Egina |

| Helburua |
|---|
| **Ikastetxeak dituen irakaskuntza-ikaskuntza baliabide digitalen azterketa egitea, egiten den erabileraren hausnarketa eginez, mantendu edo aldatu behar direnak detektatzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua | 2024/05/31 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| Irakaslearen koaderno digitalaren erabilera aztertu eta erabakiak hartu dira. | Bai/Ez | Bai |
| Ikastetxean erabiltzen diren inguruneen eta baliabideen erabilera egokiaren hausnarketa egin da. (Dat | Bai/Ez | Bai |
| Digitalizatu ahal diren dokumentuak eta prozesuak adostu eta zerrendatu dira. | Bai/Ez | Bai |
| Erabilera egokien eta arduratsuen araudiak ezarri eta komunikatu dira. | Bai/Ez | Bai |
| Inzidentzien kudeaketa bideak ezarri eta komunikatu dira. | Bai/Ez | Bai |
| Ikasgune eta Hezigune plataformen erabilera eraginkortzeko ideiak bildu dira. | Bai/Ez | Bai |

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Irakaslearen koaderno digitalaren erabilera aztertu. | Galdetegiak... | Dig. batzordea, zuzendaritza | 2023/12/15 | Egina |
| Irakaslearen koaderno digitalal aukerak aztertu eta erabaki bat hartu. | Programa aske eta ordainpekoak, beste ikastetxeen esperientziak... | Dig. batzordea, zuzendaritza, Departamentuak | 2024/02/02 | Egina |
| Egunerokoan erabiltzen ditugun dokumentuak eta prozesuak digitalizatu ahal diren aztertu eta zerrendatu. | Batzorde bilerak, galdetegiak | Dig. batzordea | 2024/03/01 | Prozesuan (%60-79) |
| Baliabideen erabilera egokirako eta arduratsurako araudia eguneratu. | Hardware eta Software, formakuntza, eraginguneak | Dig. batzordea, IKTroa, zuzendaritza | 2024/03/31 | Hasita (%1-19) |
| Inzidentzien kudeaketa protokoloa zehaztu eta helarazi. (ikasleen eramangarriak adib.) | Siteak, formularioak... | Dig. batzordea, IKTroa, zuzendaritza | 2024/03/31 | Hasita (%1-19) |
| Barne eta kanpo komunikazio sistemen eraginkortasuna hausnartu. | Galdetegiak, familiak, IGE | Dig. batzordea, IKTroa, zuzendaritza | 2024/04/28 | Prozesuan (%60-79) |

## GP Garapen profesionala

| Helburua |
|---|
| **Ikastetxearen OLEa (Erakundearen Ikas-Alorra) sortzea, arlo eta maila bakoitzerako baliabide egokienak identifikatuz, etapa bakoitzak eskatzen duen ikasleen konpetentzia digitala maila lortzen laguntzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| GP 1.4 Agerikoa da EGP eredusorta zabala dagoela | 2024/06/14 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| Ikastetxeak antolakundearen ikaskuntza-ingurune bat garatu du. Ingurune horretan, ikastetxean egind | Bai/Ez | Bai |
| Ikasleen konpetentzia digitala maila etapaka zehaztu da | Bai/Ez | Bai |
| Ikastetxeko Erakundearen Ikas-Alorra (EIA/OLE) zehaztu eta eskuragarri dago. | Bai/Ez | Bai |
| OLEaren informazioa harrera planean dago txertatuta. | Bai/Ez | Bai |
| Ikastetxearen gaitasun digitala maila neurtzen duen Selfie For School galdetegia egin da. | Ehunekotan | %80 |

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Ikasleen konpetentzia digitala maila etapaka zehaztu. | DigComp markoa eta IKT irteera profila | Dig. batzordea | 2023/09/15 | Prozesuan (%60-79) |
| Ikastetxean dagoeneko erabiltzen diren baliabide digitalak klasifikatu. | Galdetegiak, Departamentu bilerak | Dig. batzordea, irakasleak | 2023/11/30 | Prozesuan (%60-79) |
| Departamentuen arteko esperientzien trukaketa bideak ikertu. | Ideia jasa, galdetegiak... | Dig. batzordea, zuzendaritza | 2023/01/31 | Egina |
| Ikastetxearen OLEaren diseinua pentsatu eta sortu. | Biltegi askeak, Sitea... | Dig. batzordea | 2024/02/29 | Egina |
| Eskuragarri utzi ikastetxeko baliabide eta esperientzien biltegi digitala. | Unitate partekatuak edo Site | Dig. batzordea | 2024/05/31 | Prozesuan (%80-99) |
| Irakasle iritsi berrientzako harrela planean OLEaren erabilera txertatu. | Harrera plana, OLEa | Dig. batzordea, zuzendaritza | 2024/06/14 | Prozesuan (%60-79) |
| Selfie For School galdetegia egin. | S4S plataforma | Dig. batzordea | 2024/04/01 | Detektatua |

| Helburua |
|---|
